

Jauna zuekin

Baiña Jauna ez dago gurekin.

Argi ta garbi, sits eta bits, miiñean ezelako ule, bizar eta lits barik, guk zarrok, "lengo" zarrok, gure burua ja-tortzat daukagunok, bularra jota edo jo barik, orixe autortu bear dogu.

Iñok ez dausku ukatuten len zer izan giñanik, agindu lez jokatu gendun-
nik, gure siniste eta euskaltzaletasu-
nean jatorrak izan giñanik.

Baiña zarrok, lengo zarrok, gure egitearen poz eta atsedeen ordez, naigabea daroagu zartzaroan. Erreta geratu gara. Argi esan bear da ori. Lengo zintzotasun eta lotutasunez ilgo gara. Eta "zoaz baketan" pozago esango daukue gaurko askok, gure biziaren luzatzea opa baiño.

Ziur gagoz orregaz.

Gaztetan ez da ikusten orrelakorik. Orduko odol bero ta itsuak dana gainduten dabe.

Baiña zartzaroan, une eta giroko ametsak bat itsututen ez dabenean, goitik bera norberekeri ardura barik, lan eta ogibide baten loturen kezka barik, oztopo barik begiratu daikegunean, beste era baten ikusten da giroko jokabidea.

Eta konturatu be egiten da bat gu zarrok gasteak baiño azkeago, libreago berba egin geinkela, zeatzago epaitu geinkela jokabidea, ustelkeri askoren atsa igarri ta artzeko nortasun eta duintasun bereziagoa dogula.

Len baiño indar gitxiago eukiko dogu, baiña gureari eusteko kemen astunago be bai.

Illak dira Bizkai'ko gure berbeta jatorraren aldeko ekintza bat asi gendula.

Guzurra dirudi, eta askotan pentsa-

tuteko eran, zoro aizeen batek jota ete gabiltzan.

Berba gozoak nun nai entzun izan doguz. Aurrera jarraitzeko arnasa eskiñi bere bai. "Gu be orretan gabiltz ba", usterik gitxienetan esan dauskue. Eta beste jokabideetan dabilta uste doguzanak esan be.

"Ni be zuekin geiago nago, oraingo barrabaskeri onetan diarduenekin baiño..."

"Zuek alako a ontzat artuko ba zenduke, beste areik ez leuke berbarik eukiko"...

Alako a ori, h izkia izan bear dau. Orretara be eldu gara.

Baiña, jaunak, euskera politika al da? Zegaitik politikatu bear dogu euskera?

Eta euskerari politika jokabide edo usañak sartu dautsezan koloregarri batzuk, zegaitik izan berar dira nai ta ezko kolore danontzat? Begiakin erabili bear al da euskera edo ta beste zentzu bategatz?

Eta beste zentzu orrek ez al dausku biotzera, eta belarrira, eta adimenera garbi agertzen, erria zelan agertzen dan bere berezko agerpenetan, indarkeri, naste eta politika barik, bere agerpen jatorretan?

Jauna zuekin, esaten daukue borondate itxurako biozkadetan.

Ez dakit Jauna gugaz egongo dan, baiña erriaren aurrean euren buruak jauntxo lez lotuta daukezan asko ez dagoz gugaz, nai ta ederkaturaz, eta zarrok urtuko garean bildurrez, bestera esan.

Eta guk be garbi esaten dogu: gu be ezin egon giñei eurez espirituarekin.

Gure otzan-opa edo sakrifizioa naigo dabe, biar edo etzi tatarrez oinperatuko dituenen irribarre faltsua galdu baiño.

Ori, gu zarrok, eguneko argia lez ikusten dogu.

Aguztin ZUBIKARAI.